

2026KO APIRILAREN 20KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita seiko apirilaren 20an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- FAKTURAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2026ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 13 zenbakidun zerrenda, HIRUROGEITA LAU MILA BERREHUN ETA HOGEITA ZORTZI euro ETA BERROGEITA LAU zentimokoa (64.228,44 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

Fakturak aztertu ondoren, 2026ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 18 zenbakidun zerrenda, HOGEITA HAMAIRU MILA BERREHUN ETA HOGEITA HAMAIKA euro ETA HOGEITA ZAZPI zentimokoa (33.231,27 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

II.- MEANDRO ALDEKO OINEZKOENTZAKO BIDEA EGITEKO LANEN 3. OBRA-EGIAZTAGIRIA (LIKIDAZIOA).-

3. Obra Egiaztagiria (Likidazioa): 34.898,94 €(BEZa barne)

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu), lehenengo obra egiaztagiri hau onartu egin du.

III- HILERRIKO ZERBITZUEN KONTRATUAREN LEHEN LUZAPENA.-

2023ko Ekainaren 23an sinatu zen Lazkaoko Udala eta Hargoi Hilerrria S.L.ren arteko kontratua Lazkaoko Udal Hilerrian Zerbitzu jakin batzuk eman zitzaizkien. Sinatutako kontratuak 3 urteko iraupena du.

Plegu administratibotan urte beteko bi luzapenen aukera aurriztuz zen Kontratazio Organuak bi hilabete aurretik hola erabakiko balu.

Honen aurrean eta Lazkaoko Udalak kontratatutako zerbitzua beharrezko duenez, kontratua urte betez luzatzea proposatzen da.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

IV.- ARERIA KULTUR-GUNEAREN ZINEMA ARETOAN EMAN BEHARREKO ZERBITZUEN KONTRATUAREN LEHEN LUZAPENA.-

2022ko urriaren 5ean Lazkaoko Udalak eta HTK Film, S.L.k Lazkaoko Azeria kultur gunean ustiaketa zerbitzuak emateko 4 urtetarako kontratua izenpetu zuten, urte beteko luzapena egiteko aukerarekin.

Egun, HTK Film, S.L.k urte beteko luzapena egiteko interesa adierazi du eta horren aurrean teknikari honek Lazkaoko Azeria kultur Gunean ustiaketa zerbitzua emateko kontratuaren luzapena izenpetzearen aldeko txostena egiten du.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

V.- ARRATOIAK HILTZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUAREN BIGARREN LUZAPENA (GEZ).-

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2023-03-28ko FA-GO-2023-642 Foru Aginduaren bidez, Kontratazioen Zentralaren bidez, "Arratoiak hiltzeko zerbitzua" kontratatzeko IRABIA CONTROL DE PLAGAS S.L. esparru akordioa burutzea ebatzi zuen, hasieran bi urterako eta beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Honen aurrean eta Lazkaoko Udala esparru akordio hori atxikitako bat izanda, eta "Arratoiak hiltzeko zerbitzua" beharrezkoa denez, kontratu eratorria ere urte betez luzatzea proposatzen da.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

VI.- SAN JOSE AUZOAN HIRI-IGOGAILUA INSTALATZEKO KNTRATUAREN ESLIPENAREN EBAZPENAREN BERRI EMATEA.-

Lazkaoko Udalak, 2026ko urtarrilaren 26ko Tokiko Gobernu Batzarrean hartutako akordioaren bidez, San Jose auzoan hiri-igogailua instalatzeko obrak, prozesura ireki sinplifikatuz eta lehiaketa bidez, esleitzeko kontratazio espedientea eta honi dagozkion baldintza teknikoan eta administrazio baldintza partikularren agiriak onartu eta lehiaketarako deialdia egitearen erabaki zuen.

Apirilaren 14ean Alkatetza Ebazpenen bidez CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO S.L.L.-ri esleitzen zuen. 166.542,76 (gehi BEZa).

VII.- MIKELAR 4-5EAN BERRURBANIZATZEKO KONTRATUAREN ESLEIPENAREN EBAZPENAREN BERRI EMATEA.-

Lazkaoko Udalak, 2026ko otsailaren 9ko Tokiko Gobernu Batzarrean hartutako akordioaren bidez, Mikelar, 4-5ean berrurbanizazio obra, prozedura ireki sinplifikatuz eta lehiaketa bidez, esleitzeko kontratazio espedientea eta honi dagozkion baldintza teknikoen eta administrazio baldintza partikularren agiriak onartu eta lehiaketarako deialdia egitearen erabakiaren berri ematen da.

Apirilaren 16an Alkatetza Ebazpenen bidez SASOI ERAIKUNTZAK S.L.ri esleitzen zuen. 85.500 € (gehi BEZa)

VII.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Gizarte larrialdietarako Zerbitzua.-

- 135 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 141 €ko dirulaguntza ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren %94 da.
- 670 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 93 €ko dirulaguntza ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren %93 da.
- 09-01-007 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 150 €ko dirulaguntza ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren %100 da.
- 14-01-005 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 83 €ko dirulaguntza ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren %83 da.
- 16-01-005 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 144 €ko dirulaguntza ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren %96 da.
- 18-01-003 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 92,50 €ko dirulaguntza ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren %100 da.
- 18-01-004 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 150 €ko dirulaguntza ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren %100 da.
- 22-01-001 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 83 €ko dirulaguntza ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren %83 da.
- 22-01-007 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 148,50 €ko dirulaguntza ematea urtarrietik abendura. Eman daitekeenaren %99 da.
- 22-01-010 zenbakidun esped.: alokairu gastuetarako hilean 250 €ko dirulaguntza ematea urtarrietik abendura eta etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 100

€ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren %100 da.

- 22-01-015 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 62 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren %62 da.
- 23-01-001 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 94 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren %94 da.
- 23-01-004 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 150 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren %100 da.
- 23-01-005 zenbakidun esped.: alokairu gastuetarako hilean 217,50 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura eta etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 130,50 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren %87 da.
- 23-01-014 zenbakidun esped.: lehen mailako premietarako gastuetarako hilean 250 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik otsailera eta 200€ko dirulaguntza ematea martxotik abendura. Eman daitekeenaren %100 da.
- 23-01-017 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 120 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren %100 da.
- 24-01-002 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 88 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren %88 da.
- 24-01-003 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 150 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren %100 da.
- 24-01-009 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 100 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren %100 da.
- 25-01-002 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 120 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren %100 da.
- 25-01-004 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 132 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren %88 da.
- 25-01-005 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 91 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren %91 da.
- 25-01-006 zenbakidun esped.: etxebizitza mantentze gastuetarako hilean 103,50 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren %69 da.
- 25-01-008 zenbakidun esped.: alokairu gastuetarako hilean 235 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura eta etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 141 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren %94 da.
- 26-01-001 zenbakidun esped.: alokairu gastuetarako hilean 125 €ko dirulaguntza

ematea urtariletik martxora eta etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 50 €ko dirulaguntza ematea urtariletik martxora. Eman daitekeenaren %100 da.

Etxeko laguntza Zerbitzua.-

- 26-11-02 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea urtarrilaren 26tik, astelehenetik larunbatera egunero 4 ordu laguntza pertsonalerako eta etxeko garbidetan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena %100 a izango da.

Kulturako eta denbora libreko jarduera eta ikastaroetako tasak ordaintzeko laguntza ematea.-

- 25-24-01 zenbakidun esped.: Martxoko robotika ikastaroa ordaintzeko 40,00 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren %100 a izango da.
- 25-24-02 zenbakidun esped.: Martxoko marrazketa ikastaroa ordaintzeko 29,50 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren %100 a izango da.
- 25-24-04 zenbakidun esped.: Martxoko robotika ikastaroa bi seme alabei ordaintzeko $40,00 \times 2 = 80,00$ €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren %100 a izango da.
- 26-24-01 zenbakidun esped.: Martxoko robotika ikastaroa ordaintzeko 40,00 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren %100 a izango da.
- 26-24-02 zenbakidun esped.: Martxoko robotika ikastaroa bi seme alabei ordaintzeko $40,00 \times 2 = 80,00$ €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren %100 a izango da.

Joxemiel Barandiaran udal kiroldegiko bazkietza jarduerengaitik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntza ematea.-

- 25-23-03 zenbakidun esped.: igeriketa ikastaroa ordaintzeko (urtariletik martxora) 66,70 €ko dirulaguntza ukatzea, asistentzia maila %50a baina txikiagoa izan delako.
- 25-23-13 zenbakidun esped.: igeriketa ikastaroa ordaintzeko (urtariletik martxora) bi seme alabei $66,70 \times 2 = 133,40$ €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren %100 a izango da.
- 25-23-14 zenbakidun esped.: igeriketa ikastaroa ordaintzeko (urtariletik martxora) 66,70 €ko dirulaguntza ukatzea, asistentzia maila %50a baina txikiagoa izan delako.

IX.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- Antzar Konpartsari.-

2026ko apirilean Erraldoien bilkura antolatzeko lehen zati bat ordaintzea, 4.000 €, proposatzen da.

X.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Euskara ikasten ari direnei.-

2025/2026 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bat izan da eta emango zaien kopurua 366,00 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2026ko aurrekontuaren 480.01.335.00 partidatik.

XI.- HEZKUNTZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Hezkuntza Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- Lazkaoko Txiki Musika Eskola.-

2026 urtean lazkaoko udalaren eta Lazkao Txiki Musika Eskolaren artean izenpetutako hitzarmenean adierazi bezala 3. Trikiti jaialdia martxoaren zazpian Lazkaoko Azeria Kultur gunean antolatzeagatik 2.000 € dirulaguntza ordaintzea da.

XII.- KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol eta gazteriako zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honakoa erabaki du:

- Kirol sariak.-

2026ko Lazkao Kirol Sariak egitasmoa ondoren zerrendatzen diren oinarriak onartu eta hauetan oinarrituz martxan jartzea da.

Ikullu Razing.-

Ikullu Razing-en eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 6.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Orain, lehen ordainketa %60, hau da 3.600 €, ordaintzea onartu da.

Lazkaoko Pedalier Txirrindulari Elkartea.-

Lazkaoko Pedalier Txirrindulari Elkartearen eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 11.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Orain, lehen ordainketa %60, hau da 6.600 €, ordaintzea onartu da.

XIII.- EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardurei dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

Merkataritza eta zerbitzu sektorea suspertzeko erosketa bonuen 2026ko udaberriko kanpaina.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2026ko udaberriko plangintzaren barnean erosketa bonuen kanpaina antolatzen proposamena egin du Ekonomia Sustapen batzordeak.

Proposamenari erantsitako kanpainaren deialdiak honakoa dio:

“LAZKAOKO MERKATARITZA ETA ZERBITZU SEKTOREA SUSPERTZEKO EROSKETA BONUEN 2026KO UDABERRIKO KANPAINA

1. artikulua. Xedea.

Erosketa bonuen kanpaina honek dirulaguntza izaera du eta egungo merkataritza ohituren aldaketa dela eta, Lazkaoko merkataritza eta zerbitzuetako jarduera berreskuratzeko, erosketak herrian bertan egitea sustatuko duen eta herriko familien ekonomia lagunduko duen bonu sistema sortzea du helburu.

Kanpaina honek bonuak jarriko ditu zirkulazioan, herriko establezimenduetan gastatzeko, eta herriko eta inguruko biztanleei aukera emango die

Hauek dira programaren helburuak:

- Herriko establezimenduetan salerosketak piztea, herriko ekonomia bultzatu eta bertako kontsumoa indartu eta sustatzeko.
- Lazkaoko familien ekonomia laguntzea.
- Orokorrean herrian merkataritza bultzatzea.

2. artikulua. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura.

Kanpaina honetan emango diren diru-laguntzen zenbatekoa guztira 20.000 eurokoa izango da, eta hori 2026. urterako Lazkaoko Udalaren Aurrekontu Orokorren honako partidatik egingo da:

1.471.02.433.01 zenbakidun partida, «Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak sustatzeko».

3. artikulua. Ezargarri den araudia.

Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa; Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa; Lazkaoko Udalak dirulaguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea, udal osoko bilkurak 2017ko otsailaren 28an onartutakoa; eta Lazkaon merkataritza eta ostalaritza sustatzeko laguntzak emateari buruzko berariazko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzordeak 2023ko irailaren 25ean onartutakoak.

4. artikulua. Bonuen kopurua eta balioa.

Lazkaoko Udalak 2.000 bonu jarriko ditu salgai 2026ko udaberrirako kanpaina honetan.

Bonu bakoitzak 30 euroko prezioa izango du eta aldiz 40 euroko balioa, hau da, 40 euroko erosketa ahalmena emango du.

Bonuak erosteko unean bertan ordaindu beharko dira eta ordainketa sistema banku-txartela izango da.

5. artikulua. Programaren funtzionamendurako ezaugarriak.

a) Bonuak 5 euroko 8 txarteletan frakzionatuta banatuko dira, eta frakzio edo txartel bakoitza zatiezina izango da: erosketa bakoitzean gutxienez horietako frakzio oso bat erabili beharko da.

Erosketaren zenbatekoa bonuaren zenbatekoa baino txikiagoa bada diferentzia ez da eskudirutan itzuliko. Hortaz bonu frakzio bakoitza erosketa edota kontsumizio bakoitzean osorik agortu beharko da.

b) Frakzio edo txartel hauetatik 3 edozein saltokitan erabili ahal izango dira, eta beste 5 txartelak janari dendetan izan ezik, gainontzeko guztietan.

c) Bonuak ezin dira dirutan trukatu eta ez da inolaz ere eskudirurik itzuliko.

d) Herritar bakoitzak 3 bonu erosi ahal izango ditu gehienez. Bonuak zenbakituta egongo dira eta eroslearen NAN zk. jasoko da salmenta unean.

Pertsona batek beste baten izenean bonuak erosi ahal izango ditu honen NANA aurkezten badu, gehienez ere hiru pertsonen ordezkartzan.

e) Herritarrek programan parte hartu ahal izateko ez da beharrezkoa izango Lazkaon erroldatuta egotea.

6. artikulua. Bonuen salmenta.

Bonuen salmenta udaletxean egingo da, bertako harrera ordutegian, kanpainaren lehen egunean izan ezik, salmenta arratsaldean plazan egin ahal izango delarik.

7. artikulua. Kanpainaren iraupena.

Kanpaina 2026eko maiatzaren 27an hasiko da eta ekainaren 20an amaituko da.”

Datorren oinarrietan azokako atala oinarrietan sartzea esaten da.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia azertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

XIV.- LANDA EREMU ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

2026 Nekazal ekoizleen erosketa bonoen kanpaina.

Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2026ko udaberriko plangintzaren barnenan baserritar ekoizleen erosketa bonoen kanpaina antolatzeko proposamena egiten da. Honekin batera eransten dira kanpainaren ezaugarri nagusienak, ondorengoak direlarik:

- Epea: maiatzaren 27tik azaroaren 30era
- Kopurua: 200 bono jarriko dira salgaia, 20 eurotan erosi eta 35 euroko erosketa ahalmena emango dute (15 euro hauek Udalaren gastua izango dira.)
- Ekoizleek bonoak jasoko dituzte beraien salmentetan eta ondoren Udalera ekarriko dituzte Udalak dagokien ordainketa egiteko.
- Gehiengo gastua 3.000 € 471.02.433.01 partidatik

XV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez dago galderarik.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta erdi direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.